

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2012ko uztailaren 24a. IX. urtea. 2.389. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Iñaki Arriolak, Patxi Lopezek eta Jose Luis Herradorrek lehen harria jarri zuten, atzo, Zizurkilan. E. MAIZ

Txupinazoa, kirol lehen finalak eta danborrada, santioen lehen egunerako

Gaur hasi eta zortzi egunez luzatuko dira herriko festak Amasa-Villabonan; antolakuntzan herritar askok parte hartu dutela nabarmendu du Galder Azkue alkateak ◦3

Berdintasunerako II. Plana ebaluatzeko aukera zabaldu die udalak herritarrei

Tolosako Udalak etorkizuneko diagnostikoak identifikatu eta parekidetasuna errealitate bihurtzeko programak garatu nahi ditu ◦2

Etxaburua zizurkildarrak irabazi du segako Euskal Liga

Nazioarteko erako Euskal Herriko Ligaren azken jardunaldian marka onena egin zuen segariak; bigarren Hernialdeko Alaitz Imaz sailkatu zen eta eta hirugarren, Arrate Garin ◦6

Oterminek eta Errastik irabazi dute Berazubiko Paleta Txapelketa

Apeztegia eta Maiza bikotearen aurka irabazi dute, 30-19, Tolosa CFk antolatzen duen txapelketa; pilotari guztiak orain Txapelaren Oroigarritzko Txapelketan ari dira ◦7

AHTaren Hernialde eta Zizurkil arteko zatia martxan jarri dute

Patxi Lopez lehendakariak jarri du lehen harria, eta Gipuzkoako zati guztiak abiarazita daudela nabarmendu du; Elkarlanaren kideei «ulertezina» egiten zaie krisi egoeran «eraikuntzarekin jarraitzea» ◦4

SAN TIO JAI AK 2012

murgildu SANTIO JAIETAN euskaraz!

AMASA-VILLABONA Villabonako Udala



Rakel Lopez, Miren Urkola, Agurtza Zubero eta Iñigo Ruiz, agerraldian. I. GARCIALANDA

II. Berdintasun Plana ebaluatzeko tolosarren parte hartzea eskatu du udalak

Emakunderen diru laguntzarekin, Tolosako Udaleko teknikariek eta Betean auditoriak egingo dute ebaluazioa

Itzea Urkizu

Tolosako Udalak, 2009an onartutako II. Berdintasun Plana ebaluatzeko bidean, emakume elkarte, eragile nahiz herritarren laguntza eskatu du, aurrera begira antolatuko dituzten egitasmoetan parte hartzeko.

Etorkizuneko diagnostikoak identifikatzea eta parekidetasuna errealitate bihurtzeko programak garatzea da helbururik behinena: «Dei egiten diegu aurrera eraman nahi ditugun egitasmoetan lagun dezaten, ahal duten neurrian, galdera sortei erantzuz

nez eta modu aktiboan parte hartuz». Ebaluaketaren asmoa azaltzeko agerraldia egin dute Miren Urkola Parekidetasun zinegotziak, Agurtza Zubero udal teknikariak eta Betean auditoriako Rakel Lopez eta Iñigo Ruiz teknikariek.

Ebaluaketa, aurrera egiteko

2009. urtean berretsi zuten Tolosako udalbatzak, Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana. Horren aurretik, ordea, hainbat pauso emanak ziren jada: 2000. urtean sortutako Berdintasun Batzordea, 2005. urtean onartutako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana, 2006. urtean Tolosako berdintasun kulturaren inguruan aurkeztutako diagnostikoa, eta 2008an onartutako Berdintasunerako Udal Ordenantza.

Azken honekin, Tolosako Uda-

la aitzindari izan zen Euskal Herrian, eta inguruko administrazioetan ere, generoaren inguruko ordenantza bat sortu zuen lehen udala izan zen.

Azken urteotan burututako lana oinarritzat hartuz, Tolosako Udalak aurrera begira jarri nahi du. Parekidetasun neurri nahiz politikak abian jartzeko, «ezin-

Politikarientzat eta herritarrentzat galdera sorta bana prestatu dituzte

bestekotzat» jo dute Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ebaluaketa egitea.

2009. urtean hartutako neurriek eraginik izan ote duten jakin nahi dute, besteak beste, eta neurri hauek zenbateraino jarzten diren praktikan.

Horrela beraz, Emakunderen diru laguntzarekin, Tolosako Udaleko Parekidetasun sailko teknikariek Betean auditoria enpresaren laguntza izango dute ebaluatzeko lanean; jardun hau aldatu egingo dute esparruaren arabera, eta baita ebaluatu ahal izateko tresnak eta metodoak ere.

Modu honetara, galdera sorta bat diseinatu dute udal politikarientzat, eta prestatutako beste galdera sorta herriko emakumeen elkarte nahiz bestelako talde eragileei begirakoa izango dela jakinarazi dute.

Iturria zabalik



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologoa

Alegiako jaien ostean berriro bueltan gara denboraldiko azken zutabearekin. Alegiako jaietan ikerketa soziobiologiko bat egin nahi izan nuen eta handik zutabetxo hau idazteko gaia atera. Ikerketa nahiko gaizki atera zen... Herriko festak ez baitira ikerketak egiteko gararik hoberenak. Zergatik ote?

Hala ere, inspirazioa goizeko lauretan iritsi zitzaidan, Alegiako udaletxe atzeko zubitik behera pixa zorrotada ugari eta etengabekak ikusita. Denboraldiko azken zutabetxo hau, bizidunak eta pixa egiteak duen garrantziaz izango da. Bai, zorrotada gaude, baina mundua gu baino zoroago dauden gizasemeek gobernatzen dute, beraz...

Biologok pixa egiteari, sekrezioa edo irazketa deitzen diogu, baina zutabe honen irakurleak, neu bezala, herritar on eta sinpleak direnez, pixa egiteari, *pixa egitea* deituko dio, eta kito!

Orokorrean, animalia orok egiten du pixa edo antzeko zerbit, azken finean pixa egitean, egunean zehar jan dugun janarian sortzen diren hondakin toxikoak kanporatzen baititugu, nitrogenotan oso ugariak. Horregatik erabiltzen da pixa ongarri moduan.

Lehen animalia urtarrek (arriaren aitona-amonek), hondakin toxiko hauek amoniako moduan kanporatzen zituzten. Amoniakoa oso-oso toxikoa da, baina itsasoko uretan askatzen zuten eta horrenbeste ur artean toxikotasuna ezabatu egiten zen. Oso modu merkea da hondakin toxikoak kanporatzeko, eta gaur egungo arrainek horrelaxe egiten dute.

Lurra konkistatu zenean, ordea, inguruan ez zegoen ur masa handirik amoniako hau isurtzeko. Eta inork ez du bizi nahi amoniako putzuen inguruan! Beraz, aurrez amoniako hau gorputzean eraldatu egin behar izan zuten, urea izeneko konposatu ez hain toxiko bat sortuz, gero hau urarekin nahastu eta zorrotadaz kanporatu... Ongi etorriak *pixe zorrotada* asmatu zuten garaira. Zu eta ni bezalako ugaztunok horrelaxe egiten dugu, baina horrek ur kontsumo handia eskatzen du, beraz, komeni da pixa oso kontzentratu-

ta egotea, ahal den ur gutxienarekin, ahal den urea gehien kanporatzeko.

Narrastiek pixa egitearen artea, beste dimentsio batera eraman dute. Narrastiak oso ongi egokituta daude ura aurrezteko. Beraientzat, pixa egitea ura galtzeko modu inozo bat da. Narrastiek pixarekin urea bota ordez, azido urikoa botatzen dute (analisietan agertzen dena, bai). Azido uriko honek ureak baino nitrogeno gehiago kanporatzen du, eta oso-oso ur gutxi erabiltzen du, pixa ia solidoa izanez. Narrastien oso gertuko ahaideak dira hegaztiak, eta hauek ere sistema bera erabiltzen dute; horregatik, oiloek ez dute pixarik egiten, hauek, azido urikoa gorotzarekin batera nahastuta kanporatzen baitute.

Baina pixa ez da soilik nitrogeno hondakinak isurtzeko erabiltzen. Pixak giltzurrunetan du jatorria, eta bertan odol hodi asko daude. Eta ondorioz, odolean dauden hormona ugari joaten dira pixa zorrotadan zehar. Hormona hauek diote pixa zorrotada egin duen aleak zelako osasuna duen, arra edo emea den eta sexualki jada heldua den. Txakurrek lan

Pixa egitean jandakoan sortutako hondakin toxikoak kanporatzen ditugu

handiak hartzen dituzte pixa bazter guztietan egiten; badituzte bai arrazoiz ugari!

Ziurrenik, pixa egiteari buruz artikulua bat argitaratzen duen lehenengoa naiz, baina ez ukatu pixa bezalako hondakin arrunt batak baduela bere mamia. Sekretua, beste begi batzuek begiratzea da; biologoen begiez!

Azken paragrafoa honetan, nire udako erretirora joan aurretik, irakurleei mesedetxo bat eskatu nahi nieke. Asko zarete idazten didazuenak, argazkiak bidaltzen dizkiziduenak eta zuen ikastetxeetara gonbidatu nauzuenak. Mila esker denoi.

Hala ere, ez dakit zein motakoa eta adinetako jendeak irakurtzen duen zutabe hau. Eskertuko nizuke, mail txiki batean, *bioaniztasunetik@hotmail.com*-era idatziz, zutabetxo hau irakurtzen duzuenon adina eta artikulurik gustukoena zein izan duzuen esango bazenidate.

Bide batez, eskerrik asko zutabe xume honen bestaldean egoteagatik. Etorkizun zuzen, berriro letra hauek zuen etxeetara iristen badira, poz handia izango da niretzat.

Udan zehar aspertzen bazarete, jakin www.bioaniztasunetik.com-en artikulurik guztiak daudela zuen eskura.

Ondo pasa uda!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Zortzi eguneko Santio jaiak danborradarekin hasiko dira

Asier Imaz Amasa-Villabona

Gaur lehertuko da Amasa-Villabonako santioetako txupinazoa, festaren hasiera iragarritz. Kirol ekitaldiz jantzi duten lehen eguna herritarrek, baina afariaren ostean, danborradaren burrunbek hartuko dituzte kaleak. Zortzi eguneko festak lehenari adio

Trikizio taldearen doinuekin emango dio.

Galder Azkue Amasa-Villabonako alkatea gustura zegoen iragan ostiralean, jaien aurkezpenan. Festen antolakuntzan herritar askok parte hartu dutela aipatu zuen alkateak. Krisia medio, aurtien ahalegin handiagoa egin behar izan dutela aipatu

zuen Azkuek, baina hasieran mahai gainean zituzten helburuak bete zituztela jakinarazi zuen. «Era askotako ekintzak dituen egitarau zabal bat osatu da», esan zuen alkateak.

Eskualdeko eta bertako herritarrek gonbidatu zituen jaira Galder Azkuek, «desberdintasunak alde batera utziaz, batzen gaitue-



Txekorra, bildotsa... ez da bazkari eta afaririk faltako santioetan. E. MAIZ

nak aldentzen gaituenak baino indar handiagoa» duela aldarrikatatu zuen. Jaietako kartel lehia-

ketaren irabazlea Beatriz Medrano izan zela ere azaldu zuen alkateak.

↓ Santio jaiak, egitaraua

HILAK 24, GAUR

- **17:00etan.** Txupinazoa, Malkar taldearen eskutik, Iraunkorrek txarangak alaituta.
- **17:15ean.** Erraldoi eta buruhandiak, Iraunkorrek txarangarekin.
- **17:30ean.** Frontenisa. Herriko txapelketaren finala, Olaederra kiroldegiko frontoian, Behar Zana KEren eskutik.
- **18:30ean.** Pilota eskuz binaka. Herriko txapelketaren finala, Olaederra kiroldegiko frontoian, Behar Zana KEren eskutik.
- **19:30ean.** Futbito finala, Errebote plazan.
- **21:00etan.** Herri afaria, Errebote plazan.
- **23:30ean.** Danborrada, Remi Gogoan Ekimenak antolatuta, Iraunkorrek txarangak alaituta. Musika eskolatik abiatuko da.
- **00:00etan.** Trikizio taldearekin dantzaldia, Errebote plazan.

HILAK 25, BIHAR

- **09:00etan.** Diana, Hernaniko dultzaineroekin.
- **11:00etan.** Gorriti eta bere animalien ikuskizuna, haurrentzat, kiroldegiaren ondoan.
- **13:00etan.** Mariachi Azabache taldea, Txistulari plazan.
- **17:00etan.** Patata tortilla lehiaketa nerabeentzat, Txermingo ikastolaren azpian.
- **18:00etan.** Erraldoi eta buruhandiak, trikitilariak alaituta.
- **19:00etan.** Soka dantza, Malkar plazan, Oinkari dantza taldearen eskutik.
- **22:30ean.** Eresargi abesbatzaren emanaldia, Gurean.
- **23:00etan.** Kontzertu gaua, Errebote plazan, Blaka eta Gati-bu taldeekin.

HILAK 26, ETZI

- **09:00etan.** Diana, Hernaniko dultzaineroekin.
- **11:00etan.** Salbadore jubilatuen taldeak eta Santiago egoitzako aitona-amonek egindako eskularen eta margoen erakusketa, Berdura plazan.
- **11:00etan.** Birziklatze fabrika

ikuskizuna, haurrentzat, Arroako plazan.

- **14:00etan.** Jubilatuen bazkaria, Txermingo ikastolaren azpian. Ondoren, dantzaldia Astiasaran anaiekin eta Leirerekin.
- **16:00etan.** Mus Txapelketa, Bai Euskal Herriari taldearen eskutik, Berdura plazan.
- **17:00etan.** Txirindularien herri lasterketa, Irrintzi elkartearen eskutik. Irteera eta helmuga Eroski parean izango dira.
- **17:00etan.** Ginkana nerabeentzat, Malkar plazan.
- **18:00etan.** Euskaraokea, haurrentzat, Arroako plazan.
- **18:30ean.** Errebotea, Behar Zana KEren artean, Behar Zana KEren eskutik.
- **20:30ean.** Disko festa, Errebote plazan, Oihan Vegarekin.
- **22:00etan.** Oinkari dantza eskolaren saioa, Olaederran.
- **00:00etan.** Disko festa, Errebote plazan, Oihan Vegarekin.

HILAK 27, OSTIRALA

- **10:30ean.** Haurrentzako arte tailerra. Basajaun murala egingo dute material berrerabilekin, Txermingo ikastola azpian.
- **12:00etan.** Kuadrilla arteko baltsa jaitziera, udaletxe atzean, Onddo Gazte Asanbladaren eskutik. Bakoztak prestatutako baltsarekin.
- **14:00etan.** Bazkaria, Berdura plazan, Onddo Gazte Asanbladaren eskutik.
- **17:00etan.** Poteo kalejira, Orkresta Nacional taldearekin.
- **17:30ean.** DJ Thobben eta Lore Power ikuskizuna, haurrentzat, Arroako plazan.
- **19:00etan.** Erraldoi eta buruhandiak, trikitilariak alaituta.
- **19:30ean.** Txekor jatea eta sargardo dastatzea, Txermingo ikastolaren azpian, Zunbeltz elkartearen eskutik.

- **20:30ean.** Kafe eta likore dastatzea jubilatuentzat, Marie Brizard enpresaren eskutik. Jubilatuen biltokia izango da.
- **23:00etan.** Herriko musika taldeen kontzertua: Margot, Lain eta Kantuki.

HILAK 28, LARUNBATA

- **10:00etan.** Xake Jokoa, JM Ezkai memoriale, Txistulari plazan, Billabona Xake Joko elkartearen eskutik.
- **10:00etan.** Eskulangintza azoka, Malkar plazan.
- **12:00etan.** Atari Bizi Lehiaketaren sari banaketa, Malkar plazan.
- **17:30ean.** Erromeria Eguna, Erreboteko plazan, Oinkari Dantza Taldeak antolatuta, *Herri hau sortzen segi dezagun, euskaratik eta euskaraz...* lelopean. Kalejira Lizartzako Isk&bila txarangarekin, Errebote plazan.
- **18:00etan.** Sargardo eta pintxo dastatzea.
- **18:30ean.** Erromeria, Laja eta Mikel trikitilariaren eskutik.
- **21:00etan.** Afaria: bildotsa burruntzian. Isk&bila txarangak alaiturik.
- **22:30ean.** Bertsolariak: Amets Arzallus, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Aitor Sarrigie. Gai jartzaila Amaia Agirre.
- **00:00etan.** Erromeria, Triki ta ke taldearekin.
- **02:30ean.** Herritarren larrain dantza.
- **03:00etan.** Erromeria, Ingo aldeu? taldearen eskutik.

HILAK 29, IGANDEA

- **08:00etan.** Diana, Hernaniko dultzaineroekin.
- **08:30etan.** Sokamuturra, Hernaniko dultzaineroek alaituta.

ta, Olaederra kiroldegiaren ondoan.

- **09:00etan.** Plater tiraketa, Izarren, Loatzo Tiro Elkartearen eskutik.
- **10:00etan.** Irristaketa herri lasterketa helduentzat, Eroski paretik abiatuta, Arratzain Irristaketa Taldearen eskutik.
- **11:00etan.** Irristaketa herri lasterketa haurrentzat, Eroski paretik abiatuta, Arratzain Irristaketa Taldearen eskutik.
- **11:00etan.** XXXII. Herri Krosa haurrentzat, Altzin plazatik, Zunbeltz elkartearen eskutik.
- **11:30ean.** XXXII. Herri Krosa helduentzat, Altzin plazatik, Zunbeltz elkartearen eskutik.
- **16:00etan.** Ur parkea haurrentzat. Txistulari plazan.
- **18:30ean.** Pilota. Eskuz binakako federatuen finala, Bearzana pilotalekuan, Behar Zana KEren eskutik.
- **19:00etan.** Pala Txapelketa. Binaka, herriko txapelketaren finala egingo dute Bearzana pilotalekuan, Behar Zana KEren eskutik.
- **22:00etan.** Dantzaldia, Trovahavana talde kubatarrarekin, Errebote plazan.

HILAK 30, ASTELEHENA

- **14:30ean.** Kuadrillen bazkaria, Etxeondoren.
- **17:00etan.** Kalejira, Incansables txarangarekin, Etxeondotik abiatuta.
- **20:00etan.** Dantzaldia, Tximeleta taldearekin, Errebote plazan.

- **00:00etan.** Zezen suzkoa, Errebote plazan.
- **00:00etan.** Dantzaldia, Tximeleta taldearekin, Errebote plazan.

HILAK 31, ASTEARTEA

- **08:00etan.** Diana, Hernaniko dultzaineroekin.
- **08:30ean.** Sokamuturra, Hernaniko dultzaineroek alaituta, Olaederra kiroldegiaren ondoan.
- **10:30ean.** Parke berezia (quad, txalupak, bike looping, ohe elastikoak...), haur eta gaztetxoentzat, Arroan.
- **11:30ean.** Errebote partida: Villabona-Hazparne, 83. norgehiagoka, Behar Zana KEren eskutik.
- **17:30ean.** Herri kirolak, Maiazaren Lehena plazan. III. San Inazio Giza Proba Saria, Gipuzkoako Txapelketako finalerdia. Partaideak: Aiztondo-Oarso, Berrobi eta Zizurkil. Aurretik, harri-jasotze erakustaldia: Idoia Etxeberria eta Aimar Irigoien.
- **20:00etan.** Remi Ayestarani omenaldia, III. urteurrena. Bere izena daraman ikilbidean, Remi Gogoan Ekimenak antolatuta.
- **22:00etan.** Antton Valverdeiren kantaldia, Arroan.
- **00:00etan.** Erroskilaren agurrak, Errebote plazan, Oinkari dantza taldearen eskutik.
- **00:30ean.** Dantzaldia Guzuz taldearekin, Errebote plazan izango da emanaldia.

BRONTXILLO Harategia • Itsaskide

943 69 68 23
Santio Itzala, 4
- Villabona -

Santioak ondo pasa!

ALBIZU
KIROLAK

Nagusia, 2 • Billabona
Tel.: 943 69 31 31
faxa: 943 69 31 31

Santioak ondo pasa!

MAPFRE

ASEGURAMOS SE CALIDAD DE VIDA

K/Berria, 15 • Villabona
Tel.: 943 69 22 19

Hernalde-Zizurkil zatiko lehen harria jarri du Patxi Lopez lehendakariak

AHTaren Gipuzkoako azken zatia martxan jarri dute; hainbat herritarrek bide ertzean protesta egin dute

Eneritz Maiz Zizurkil

Atzo jarri zuten Abiadura Handiko Trenaren Hernalde-Zizurkil zatiko lehen harria. Patxi Lopez lehendakaria, Iñaki Arriola Garráio sailburua eta Jose Luis Herrador Gobernuak EAEko azpiordekaria izan ziren.

Zati honetako obrak hastearrekin *Euskal Y*-aren Gipuzkoako adar osoa egikaritze fasean dago. Zati batzuk bukatu dituzte, eta obrak egiten ari direnekin 59,1 kilometro eraikitze fasean daude. Lopezek nabarmendu du atzokorekin hamazazpigarren zatia jarri dutela martxan, eta Gobernura iritsi zenean bakarria zegoela dela eta, Madrilera lotzeko epea ezin da zahaztu. Lehentasuna izanagatik itxaron egin beharko da», nabarmendu zuen Herradorrek.

Hernalde eta Zizurkil arteko zatia Hernalde, Anoeta, Asteasu eta Zizurkilgo herrietatik pasako da. Tarte honek, 5.870 metroko luzera izango du, eta 158 milioi euroko aurrekontua du. Obrak bukatzeko epea 42 hilabetetako da.

Erliebe oso malkartsua du tarte honek, eta mendiak eta bailarak gurutzatuko ditu. Ibilbidea ubidearen hegoaldeko mendi ma-



Hainbat herritarrek bide bazterrean protesta egin zuten. E. MAIZ

galean hasiko da, eta ibai horren gainean 25 metroko luzerako zubi bat eraikiko dute. Ubidea igaro ostean, Tolosatik Hernaldeko GI-3412 errepidearen azpitik zeharkatzen da, eta Anoetako tunela hasiko da. Honek 1.372 metroko luzera izango du.

Tunelaren iparraldeko ahoaren ondoren, Alkizako ubidea Anoetatik barrena Asteasuraino lotuz 69 metro luzeko bidezubi baten bidez zeharkatuko da. Asteasun, 2.576 metroko luzera duen tunela egingo da. Asteasuko tunela, garai bateko San Jose meategiarren ibararren hegoaldeko mendi magalean bukatuko da, eta aire zabalean 61 metroko luzerako bidea egingo da. Jarraian, 268 metroko tunel faltsua egingo dute eta 404 metroko zubibidea. Azken honek Villabonatik Asteasura doan GI-2631 errepidea zeharkatuko du.

Zatia bukatzeko, Urkamendi mendira iritsiko da Abiadura Handiko Trenaren bidea, eta 845 metroko luzerako tunelaren bi-

tartez zeharkatuko da. Zati hau, Zizurkil-Andoain tartearrekin lotuko da.

«Ezin dugu geldirik geratu»

AHTaren aurkako elkarlaneko kideek protesta egin zuten. Zizurkilgo Joxe Arregi plazan elkartu ziren hainbat herritar, eta harria jartzen ari ziren gunera gerturatu nahi izan zuten. Ertzaintzak bidea oztapatu zien, eta utzi zieten lekura bitarte gerturatu ziren. Bide bazterrean egin zuten protesta pankarta eta megafoniarekin.

«Ulertezina egiten zaigu. Bizi dugun krisi egoera ikusirik erakuntzarekin bere horretan jarraitzen dute. Noiz arte? Jendea kale gorrian dagoen bitartean, agintariak ez dute inongo lotsarik», salatu zuten.

«Ezin dugu geldirik geratu, eta borrokatu beharra dago. AHTaren aurrekontuaren %20a bakarrik dago gastatuta, eta %80a falta da oraindik zahutzeko», gaineratu zuten.

Udal gobernua «programa falta» salatu du PSE-EEK

Tolosako PSE-EEren ustez, Bilduren eta Aralarren gobernuak «urtebeteko atzerapena eta geldialdia» ekarri ditu

Erredakzioa Tolosa

Jose Ignazio Asensio Tolosako PSE-EEren zinegotziak, Bilduren eta Aralarren gobernuak duen «programa falta» salatu du. Urtebete pasa den honetan, Tolosako herrira «atzerapena eta geldialdia» ekarri dituela adierazi du.

Tolosako herritarrek ez direla Bildu eta Aralarren «trikimailue-

kin engainatzen uzten» nabarmendu du PSE-EEren zinegotziak: «Garbi erakutsi dute Larra mendiko lurperatzearekin edota atez atekoaren aurkako 6.500 sinadurekin. Bi gauza hauek erakusten dute gobernu taldea arazoak sortzen aritu dela ez dauden lekuan».

Proiektuei dagokienean, «arazoa ez da egoera ekonomikoa, baizik eta udal gobernuak duen ideia eta proiektu falta. Guztiak aurreko legealdikoak dira», nabarmendu du. Eta eraikin eta leku publikoak «ezker abertzalearen iragarri taulak dirudite era guztietako pankartekin», gaineratu du Asensioek.

Irudia > Tolosa



MURRIZKETEN AURKA

Tolosako Gizarte Segurantzak, Sepe (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) eta Lanbide bulegoetako langileek elkarretaratzea egin zuten, ostiralean, 11:00etatik 11:30era, Espainiako Gobernuak egin dituen murrizketen aurka. «Elkarretaratzea gizarte osoak jaso duen gizarte eskubideen murrizketen aurka egin dugu, eta bereziki funtzionarioena», salatu zuten. Ostiraleko beltzez jantzitako joango dira protesta moduan eta elkarretaratzeak egingo dituzte. HITZA

berria bekak 2012

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 zortzi beka,** horietako bat bideo informatiboak lantzeko

EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, irailetik ekainera
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beke bat**

EZAUGARRIAK:

- Hamabi hilabeteko iraupena, irailetik irailera
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Tolosa ▶



MUNDUKO IPUINEKIN JOLASTUZ

Euskal Herria plazan mundu osoko ipuinek egin dute bat asteburuan. Ostiraleko eta larunbateko arratsaldeetan Herrialde Katalanetako El Burro dels Jocs konpainiaren *Titellarium* muntaia izan zen bertan, eta haurrek kultura eta tradizioa jolasen bidez barneratzeko aukera izan zuten. Eszenatoki ugari jarri zituzten eta parte hartzaileek, irudimenari esker, ipuinetan murgiltzeko aukera izan zuten. I.G.L.

Villabona ▶



BISITARI ASKO GARAGARDOAREN FESTAN

Irrintzi elkarteak antolatu ohi duen Garagardo Azoka oso jendetsua izan da. Ostegun arratsaldean ireki zuten eta herenegun bukatu zen, eta asteburu guztian zehar bisitari asko izan ditu. Bisitari

tarik 23 garagardo mota dastatzeko aukera izan dute, ohiko ukondo, saltxitxa, gula eta bestelako jakiekien batera. Aurten lehen aldiz, entsalada donostiarra ere zerbitzatu dute. R.C.

Asteasu ▶



GIRO EDERRA SANTAMAÑAN

Asteasuko Santamaña ermitaren inguruan ohi baino auto gehiago izan dira egun hauetan. Izan ere, jaiak ospatu dituzte. Larunbatean Mus Txapelketarekin hasi zituzten ekitaldiak, eta gero haurren txanda izan zen. 25 bat haur aritu ziren jolasean. Herenegun Andazarrateko Txirindulari proba egin zuten goizean eta herri kirolen saioa, ondoren. Arratsaldean Taito zaldiaren eta Goiballako giza taldearen arteko lehia izan zen, eta gero jaitzi zen Tranpazulo. R.C.

Tolosa ▶



AUZO GIROA SUSTATUZ

Larramendi auzoko bizilagun talde batek antolatuta, txerri festa egin zuten larunbatean, Arrameleko ermitaren ondoan. Goizean hasi ziren lanean; txerria zatitu, eta ondoren hasi ziren erretzen. Lanak bukatutakoan, guztiak bildu, eta bazkaria egin zuten 125 pertsona inguruk. Ondoren haurren txanda izan zen jolasak izan baitzituzten. Auzoko giroa eta bizilagunen arteko harremana indartzen joateko ballatu zuten eguna. I.G.L.

Osteguna 26. Villabonako

IRU ALDETA
tabernan
23:00etatik aurrera

SOUND SYSTEM GAUA

Joanne Highland
Monsieur Le Crepe
Xabi Solano
DZ

VILLABONA (SALVADORA)



DONOSTIA (ATOTXA ERREKA)



ORDIZIA (SAN JUAN)



Azken proban marka onena lortuta irabazi du Etxaburuak Euskal Liga

Mutiletan eskualdeko onena Jokin Garmendia baliaraindarra izan da, Montezkueko 'Erreak' ren aurretik

Asier Imaz

Nazioarteko erako Euskal Herriko Ligaren azken jardunaldia jokatu zen herenegun, Zaldibian. Eskualdeko segalari ugari joan ziren proban parte hartzera, eta guztien gainera, Alatzne Etxaburuak egindako lana azpimarratu behar da. Zizurkildarrak erakustaldia eskaini zuen berriro ere, proba irabazteaz gain, Euskal Ligako txapela jantzi baitzuen Zaldibian. Etxaburuak 1:18ko denbora behar izan zuen saila amaitzeko. Bigarren postuan, 23 urte azpiko mailan ari den Alaitz Imaz hernialdetarra sailkatu zen, 1:24ko denborarekin. Arrate Garin hirugarren gelditu zen. Laugarren eta bosgarren postuan bi ibartar sailkatu ziren, 23 urte azpikoak hauek ere, Ainhoa Galarraga eta Ainara Otamendi.

Mutiletan Igor Esnaola izan zen azkarrena. Azken proba irabaztearekin batera, Etxaburuak bezala, legorretarrak ligako txapela jantzi zuen. Hiru jardunaldiak jokatu ondoren, eskualdeko onena Jokin Garmendia izan da, ballaraindarrak bosgarren postuan amaitu du Euskal Liga. Montezkueko Koldo Arzelus *Erreak* seigarren amaitu du sailkapen nagusian; Garikoitz Etxeberria amasarrek zortzigarren; Andoni Dorronsoro ikaztegieta-



Alatzne Etxaburuak Euskal Ligako azken jardunaldian, Zaldibian, herenegun. HITZA

rrak bederatzigarren; Oier Urkola anoetarrak hamaikagarren; Igor Urkola anoetarrak hamabigarren; Unai Iraola ikaztegieta-rrak hamahirugarren; Joakin Garmendia anoetarrak hamalau- garren; Garikoitz Llobregat al- tzotarrak 21. eta Andoni Egia orendaindarrak 22.

Etxaburuaren urtea

Alatzne Etxaburuak ez zuen es- pero aurtengo denboraldia horre- lakoa izango zenik, izan ere, duela bi urte hasi zen segan, eta Arrate Garin gailentzea ezinezkoa zirudi- en: «Bigarren postua borroka- tzera joaten ginen askotan. Fisi- koki ondo nengoela banekien, baina teknikoki asko ikasi behar- rra daukat. Denboraldi hasieran, 20 minutuko proban sail handia-

goa moztu arren, pisu gehiago bil- du zuen Arratek, eta bigarren gel- ditu nintzen. Gipuzkoako Txapel- ketan, nazioarteko eran, lehen postua eskuratzea lortu nuen, ezustean, eta orain, Euskal Liga etorri da».

Hiru proba jokatu dira Almi- tzak antolatutako proban, eta hi- rurak irabaztea lortu du Alatzne Etxaburuak: «Lehena Tolosan jo- katu zen, eta Arrate Garin ez zen agertu bertara. Bigarren goan bai, eta irabaztea lortu nuen. Hi- rugarreneza azaltzearekin nahi- koa nuen txapela lortzeko, baina lan ona egitera joan nintzen, ur- duri, eta azkenean hor ere irabaz- tea lortu nuen».

Aurtengo denboraldia «oso on» izan dela dio zizurkildarrak, «ia perfektua, hasieran ez nuen

horrelakorik pentsatu ere egi- ten».

Joxe Gabirondo eta Garikoitz Etxeberriarekin aritu da presta- kuntza lanetan. Gazteluarrak izugarriko meritua duela dio Etxaburuak: «Izugarri balio du. Duela bi urte berarekin hasi nin- tzen, zerotik, ez nekien segan ibil- tzen, eta berak izugarri erakutsi dit. Lan handia egin du eskualde- ko segalariarekin». Etxeberria on- doren etorri zen, eta orain biokien ibiltzen da entrenamenduetan.

Eskualde mailan, segak etorki- zun oparora duela dio Etxabu- ruak, atzetik datozenak indartsu ageri direlako. Alaitz Imazek Zal- dibian egindako lana aipatzen du horren adibide, Arrate Garinen aurretik sailkatzea lortu bai- tzuen 20 urte ingururekin.

Lau jardunaldi jokatuta, hirugarren postuan dago Getaria-Tolosa

I. Terradillos Tolosa

Ez dute maila ona erakutsi To- losa-Getaria taldekoek Euskotren ligako laugarren jardunaldian. Pasaiaiko uretan jokatu zuten proba, herenegun, eta laugarren postuan amaitu zuten neska tolo- sarrek. Zumaia irabazi zuen es- tropada, bigarren Galizia sailka- tu zen, eta hirugarren, San Juan.

Beraz, ligako lau jurnaldi jo- katuta, eta hereneguneko lau pun- tuak batuta, Zumaia dago lehen postuan sailkapen orokorrean, 13 punturekin. Bigarren postuan, 12 punturekin, galiziarrek daude, eta hirugarren postuan Tolosa- Getaria, 9 punturekin. Laugarren dira San Juan taldekoak.

Gipuzkoako taldekako txirrindularitza proba, Alegian, igandean

I. Terradillos Alegia

Gipuzkoako taldekako txapelke- ta erlojuaren aurka hartuko du Alegiak igande honetan, hilaren 29an. Proba Larraitz auzoan izan- go da, kadete eta junior mailako txirrindulariek hartuko dute parte. 10:00etan hasiko dira parte hartzaileak pedalei eragiten.

Zabala-Nazabal garaile, Lazkaoko Pala Txapelketan

Bigarren urtez irabazi dute; Andoni Zabala gazteluarrak jaso du txapelketako Pilotari Onena saria

Aimar Maiz

Joxe Mari Kerejetaren omenezko IX. Pala Txapelketa bukatu zen herenegun, Lazkaon, eta tolosal- dearrak izan ziren garaile, Gazte- luko Zabalak eta Elduaingo Naza- balek osaturiko bikotea, hain zu- zen.

Lazkaoko finalean Andonegi- Aierdi bikote lazkaotarra 30-22 menderatu zuten Tolosaldekoek. Partida orekatua izan zen erdi al- dera arte. 13na berdinduta egon

ondoren, txapeldunek 22-13ko al- dea hartu zuten.

Bigarren aldiz jantzi dute lehia- keta horretan txapela, bi aldiz parte hartu ondoren. Gomazko pilotarekin jokatzen dute, pale- tan. Aurtun 9 bikotek parte hartu dute, ligaxka eran aurrena, eta as- teburu honetan finalaurrekoak (larunbatean) eta finala (igande- an) jokatu dituzte. Finalaurre- koa, herenegun, Garrido-Etxeber- rria bikoteari irabazi zioten (30- 15). Garrido aurtun Gipuzkoako Herriarteko Pala Txapelketan txapeldun izan da, Olaberriare- kin.

Txapeldunek txapela bana eta urdaiazpiko bana jaso dute sarit- zat. Bestetik, Pilotari Onena sa- ria Andoni Zabala gazteluarrak jaso du.



Nazabal elduaindarra eta Zabala gazteluarra erdian, antolakuntzako kideekin, herenegun. AIMAR MAIZ / GOIERRIKO HITZA



Ostiral iluntzean Berazubiko frontoian jokatu zuten finalaren une bat. I.T.

Otermin-Errasti, Paleta Txapelketako garaileak

Txapelaren Oroigarrizko Txapelketak ostiralean bukatu zen 44. Paleta Txapelketaren lekukoa hartu du

Iñigo Terradillos Tolosa

Ostiralean bukatu zen Tolosa CFk antolatutako duen 44. Paleta Txapelketa. Otermin-Errastik osaturiko bikoteak irabazi zuen txapelketa, Apeztegia eta Maizari finala irabazi ostean.

Erraztasunez nagusitu ziren irabazleak finalera ailegatu zen bikote aurkariaren aurka, 30-19 gailenduz. Otermin-Errastik hasieratik hartu zuten aurrea, eta Apeztegia-Maizari ez zuten tantotak egiterakoan asmatu. Aipagarria da txapelkun finalaurrekoa galtzekotan ere egon zirela, eta azkenean finalera iritsi eta txapela janztea lortu dutela.

Bestalde, hirugarren eta laugarren postuei dagokienez, Ormazabal eta Muñoak osaturiko bikotea sailkatu da hirugarrenean, Karrera-Izagirri 30-22 irabazi ostean.

Antolatzaileak «oso gustura» daude aurtengo txapelketarekin,



Otermin-Errastik irabazi dute aurtengo Paleta Txapelketa. HITZA

«guztia espero bezala» joan baita, eta «giro polita» sortu baita. Bestalde, eskerrak eman nahi izan dizkie Udalatx garaikurrei eta Zabaleta iturgintzari, «euren laguntzarik gabe ezingo litzatekeelako txapelketarik antolatu».

Txapelketaren jarraipena

Uztailaren 6an hasi zen Paleta Txapelketa, eta guztira bederatzik bikote aritu dira lehiatzen, Berazubi estadioko frontoian. Bada, txapelketa hori bukatu den arren, frontoi berezi horretan jarraitu egingo dute paleta partidek, izan ere, Txapelaren Oroigarrizko Txapel-

keta egingo dute aste honetan. Txapelketa horretan Paleta Txapelketan parte hartzen duten pilotariak lehiatzen dira, baina bikoteetako kideak aldatzen dituzte. Hain zuzen ere, Paleta Txapelketaren ondoren egiten duten afarian erabakitzen dituzte kanporaketak.

Atzo jokatu zituzten txapelketa horretako lehen partidak, eta bihar jokatu dituzte finalaurrekoak. Kanporaketa sistema erabiltzeko dute, eta horrela iritsiko dira bi bikote ostiraleko finalera. 18:30ean hasiko dira partida guztiak.



Larunbatean jokaturiko partidetak une bat. R. CALVO

Finalaurrekoen txanda, Transernion

Asteburu honetan jokatu dituzte Adunako pilota txapelketako finalaurreko partidak

I. Terradillos Aduna

Adunako Transernio Pilota Txapelketaren barruko zortzi partida jokatu dira iragan asteburuan. Datorren asteburuan finalerdiak jokatu dituzte pilotariak, beraz, finala geroz eta gertuago dago.

Larunbatean jokatuak partidei dagokienez, alebinetan, Zizurkilgo Zabala-Ugartemendiak 3-16 galdu zuen Amezketa Olasagasti-Zubeldiaren aurka; Andoaingo Aranburu-Eguzkitzak, be-

rriz, 16-5 egin zuen Zizurkilgo Lasa-Gorostidiren aurka. Kadeteetan, Aurrera-Saiazeko Urdanpilleta-Aburuzak 22-4 irabazi zuen, Andoaingo Arruti-Zabalaren aurka.

Igandean, berriz, benjaminetan, Zizurkilgo Perurena-Aizpuruak 16-5 irabazi zuen Añorgako Albeniz-Urruzolaren aurka, eta Adunako Aburuza-Olasagastik 9-16 galdu zuen, Alkizako Sorarain-Auzmendiren aurka. Alebinetan, Adunako Olasagasti-Erasok 7-16 galdu zuen Añorgako Orbegozo-Olidenen aurka; eta infantiletan, Zizurkilgo Ezeiza-Gorostidik 18-9 irabazi zuen, Adunako Mujika-Otegiaren aurka, eta Usurbilgo Aranguren-Aranbarrik 6-18 galdu zuen Intxurreko Altunak eta Aizpitartek osaturiko bikotearen aurka.

Bigarren saioa, Joxean Tolosa Txapelketan

I. Terradillos Amezketa

XXIII. Joxean Tolosa txapelketako sei partida jokatu dituzte iragan asteburuan. Ostiralean, kadeteetan, Errandoneak (Bera) eta Egigurenek (Tolosa) 18-5 egin zuten; gazteetan, Erostarbek (Urretxu) eta Jauregik (Andoain) 18-3;

eta nagusietan, Santxok (Usurbil) eta Santxezek (Astigarraga) 18-15. Larunbatean, berriz, kadeteetan, Espinalek (Iruña) eta Labakak (Zizurkil) 18-9 egin zuten; gazteetan, Mujikak (Altzo) eta Mujikak (Ibarra) 1-18; eta nagusietan, Bixintxok (Iparralde) eta Perezek (Gasteiz) 18-9.



Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



GREGORIO EIZAGIRRE URKOLA

(Maite Alberdiren alarguna)

Uztailaren 11n hil zen **SALLESEN** (Frantzia), 88 urte zituela.

- Goian bego -

SEME-ALABAK, BILOBAK, BIRBILOBAK ETA EIZAGIRRE FAMILIA.

AGUR MAITAKORRENA OSABA

Tolosan, 2012ko uztailaren 24an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeca Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: **BERTAKO HEDABIDEAK**



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Amezketak.** Energia Egunkari egitasmoaren bigarren eta azken eguna, gaur. 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da zabalik, eta besteak beste, modu eraginkorrean gidatzeko ikastaroak emango dituzte.

■ **Amezketak.** Festa batzordearen bilera egingo dute, gaur, 20:30ean, erabilerari anitzeko gelan.

■ **Ibarra.** Osoko ohiko bilkura egingo dute udaletxean, gaur, 19:00etan.

ERAKUSKETA

■ **Tolosa.** Aranburu jauregian bi erakusketa ikusi daitezke, Donejakue bidearekin lotura dutenak: *Peregrinatio, argiaren bidetik* eta Gipuzkoako Santiago-Bide Lagunen Elkarteak antolatutakoa bere 25. urteurrenaren dela eta.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz Lete, Izaskun. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info



Irudia Tolosa



TOLOSA CF, JAPONIAKO TELEBISTA BATEAN

Tolosa pixka bat ezagunagoa egiten ari da Ekialde Urrunean. Orain gutxi Hego Koreako telebista kate batek herriko azokari buruz informazioa jaso zuen, eta oraingoan Japoniako kirol telebista kate batek Tolosa CFri buruz egin du erreportajea. Inaki Arratibel klubeko lehendakariari elkarrizketa egin zioten, eta honek azaldu duenez, «kate horretan futbola-

ren ardura duen produktorea hemendik ibili da, eta zeresan berezia duen taldeei buruzko informazioa jaso du». Eibar, Sestao River eta Tolosa CF izan dira horietako talde batzuk. «Azpiegiturak klubarenak izatea eta futbolaz gain klubean beste kirol batzuk izatea izan da gehien harritu diena», esan du Arratibelek. I.TERRADILLOS

harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Casa Julian
Bi laguntzako bazkaria edo afaria
Santa Klara, 6 Tolosa
Tel.: 943-67 14 17
www.casajuliandetolosa.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 Ostatu Hernialde jatetxea
Bi laguntzako bazkaria edo afaria
Hernialde
Tel.: 943-65 24 96



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 Arbizu hestebeteak
Sorta bat
Arbizu
Tel.: 948-46 06 28
www.embutidosarbizu.com
www.euskalherriko plazaz.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

4 Eureka! zientzia museoa
Bi laguntzako bina sarrera
Mikeletegi, 43-45 Donostia
Tel.: 943-012478
www.eurekamuseoa.es



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** (harpidedunen kodea, izena, herria, eta zereskaitzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz) Aste honetako asteburua, asteburuen eta ostegun-gioan, nahiz duzun ostena. Sarbideak zereskaitzetan argitaratuko dira.

TXOKOA hitza